

GERNIKA / Irakurleei liburuak oparitu dizkiete liburutegietan

Atzo Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen. Hori dela eta, Bermeoko eta Gernika-Lumoko liburutegiek zenbait ekimen antolatu zituzten atzokoan. Bermeoko udal liburutegiak urtero egiten duen legez, `liburu bat, larrosa bat´ ekimenaren barruan Bermeoko liburutegira hurbildu ziren guztiei liburu eta larrosa bana eman zieten. Arratsalderako, berriz, hitzaldia antolatu zuen. 19:30ean berbaldia eman zuen Eneko Bidegain idazle eta kazetariak, liburutegian bertan. Gernika-Lumoko udal liburutegiak, ostera, lehenengo aldiz ospatu zuen atzo Liburuaren Nazioarteko Eguna. Atzo liburutegira liburu bat alokatzera joan ziren guztiei eskuliburu bat oparitu zieten.